



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

H2O misioa: Ezagutu, ekin, babestu

Bigarren Hezkuntza 1. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natur Zientziak

Ibaiak, urmaelak, ozeanoak, itsasoak... planeta osoa uraren erritmoan mugitzen da. Ura da bizitzarako ezinbesteko baliabidea, baina... ematen al diogu benetan merezi duen garrantzia eta errespetua?

Esperientzia honek gure ur-ekosistemak mehatxatzen dituzten erronka handien aurrean jartzen gaitu. Esplorazioaren, behaketaren eta talde-eztabaidaren bidez, giza jarduerak uretan duen eragina aztertuko dugu. Foku oso zehatz batekin: Plaiaundin pilatzen diren hondakinak eta egunero eragiten duten kalte isila.